

*Gregorio, Ines, Maixabel O., Joseba, Laureano,
Maixabel T., Luli, Jokin, Jabier eta
Maritxuri gure eskerrik beroenak,
proiektu honen oinarri izatedagatik.*

*Josune, Eluska, Ekhi eta Lourdes Imazeri
mila esker gurekin izan duzuen prestutasunagatik.*



San Joan Ikastolako lehen ikasleak, Maixabel andereñoarekin. Segura, 1967.

Egileak: Olatz Retegi Rekalde, Mikel Edeso Egia, Aranzadi Zientzia Elkartea
Argazkiak: Segurako Udal, Indalecio Ojanguren (Gure Gipuzkoa),
Laureano Telleria eta Maixabel Telleria.

Diseinua: Tamtam diseño, eventos & multimedia S.L.

Imprimatzen du: Gráficas Bost S.A.

Lege gordailua: SS 1363-2015

ISBN 978-84-943123-9-7

Segurako San Joan ikastolaren sorrera

Olatz Retegi Rekalde
Mikel Edeso Egia

Segura 2015



ARANZADI

zientzia elkartea . sociedad de ciencias
society of sciences . société de sciences

Geroa eraikiz memoria landuz

Bizidunok bizitza laburra dugu, jaio ginenetik hamaika amets eta proiektu ditugu, bidean helburu horiek gozatzen saiatzen gara, eta askotan konturatu gabe helmugan gaudie. Adinaren heldutasuna etortzen den garai horretan memoria inoiz baino gehiago lantzen da, oroimena bizitzaren tresna garrantzitsu bihurtzen delarik. Segurako hiritar lan talde batek memoria aktibatu eta ibilbide bat jorratu dute hora ez galtzeko.

Aranzadi Zientzia Elkarteak azken bi hamarkadatan ekimen eta lan ugari burutu ditu Segurako herrian, bai hiriguneko dozenaka etxe historikoak fatxadak berrituz gazte auzolandegien bitartez edo arkeologia ikerketak gauzatzuz. Aldiz, liburu hau bertako pertsona helduek garatu dute, iraganari begira oroimena berreskuratu eta gizarteari kontatzeko irrikaz. Liburu hau horren lekuko da eta beti parte hartze zabal eta ikasteko gogo dinamiko batekin sortu da.

Hain zuzen ere, hauexek dira Europa Batasuneko programa aurrerakoien ikerlariek baloratzen dituzten ekimenak. Segurako herrian dagoeneko aspaldian lantzen ari zena alegia. Beraz europar proiektu honentzat ezinbesteko herria genuen Segura.

Bestalde, zorionez badakigu Segurako harrizko etxe zaharrak eta Aste Santuko prozesioa baino sakonagoa dugula gure hizkuntza, bera herri izaeraren oinarria baitugu, hala izan da eta horrela izaten jarraitu dadila nahi dugu. Hauxe izan da Seguraren borondatrea. Erreza hau esatea izandako sufrimendu eta oztopoaik ikusita, liburuxka honen tokiko komunitateak bere garapen kulturalaren lekuoak dira. Hortaz, bidea beti zabalik dago.

Juantxo Agirre Mauleon

Aranzadi Zientzia Elkartea
Idazkari Nagusia

Sarrera

Gure herriaren historia mendez mende eta belaunaldiz belaunaldi gaur eguneraino iristea lortu izan da ahozko transmisioaren bidez. Mahai inguruan eserita, beheko suaren inguruan, kaleko lagunartean eta beste hairbat modutara iritsi dira gure belarrietaraino antzinako ohitura eta pasadizoak. Ahozkotasunak ordea, bere balio itzelaren ondoan badarama itzal egiten dion hutsume bat eta guk ez genuke gure herriaren historia itzalpe horretan galtzerik nahi.

Horregatik, Aranzadi Zientzia Elkartea Segurako Ikastolaren sorrera aztertu eta liburuxka edota irudi bidez etorkizun bihurtzeko proposamena mahaigaineratu zue-
nean, ez genuen inolako zalantzak izan gure babeska eskaintzeko.

Hala ere, ez gara gu liburuxka honetako protagonista nagusiak, ezta gutxiago ere. Garai zail haitan euskararen eta euskal kulturaren aldeko pauso irmoa eman zutenak dira liburuxka honetako lerroei bizia eman dietenak. Gurasoak, laguntzaileak eta bertan hezitako umeak izan ziren egoera ilun zuen egoera hora bide onean jarri eta argitu zutenak.

Bukatzeko, Aranzadik sarrera hau idazteko aukera eman didanez, gure amak eta orokorrean emakumeak laudoriatzeko dugun gabezia alde batera utziz, ez nuke aipatu gabe utzi nahi Segurako Ikastolako lehen andereñoa izan zen gure ama. Eskerrik asko Segurako haurron etorkizuna koloretan idazten hasteagatik eta muxu handi bat.

Ekhi Albizu Telleria

Euskara eta Kultura Zinegotzia

AURKIBIDEA

SAN JOAN IKASTOLA	7
LEHEN URRATSAK	11
LEHEN HAZIAK	15
HASIERAKO BELDURRAK	19
HASIERAK BETI GOGORRAK	21
OROITZAPENAK	23
<i>Txikitako oroitzapenak</i>	25
<i>Txanbolinpeko lokala txikia gertau zen</i>	26
<i>Ikastolako furgoneta</i>	26
EZ DIRA ASPALDIKO KONTUAK ANTZEZLANA	27
SAN JOAN IKASTOLAKO IKASLEAK (1967TIK 1981 BITARTE)	29

SAN JOAN
IKASTOLA

SAN JOAN
ikastola-
ren sorrera

SAN JOAN IKASTOLA

Ikastolaren aldeko mugimendua 1966. urtean sortu zen Segurako herrian. Urteak pasa ahal, gero eta partaide gehiago elkartzen hasi zen mugimendu euskarazale hone-tara. Lehenengo bilerak Antoniotarren lokalean edo “Zentroan” egiten zituzten. Beasainera ere joaten ziren bilerak egitera, ordurako Beasainen ikastola martxan baitzegoen.

Sei-zortzi hilabetetan bilerak egin ondoren, sortzeko zegoen Ikastolako lehen batzordea aukeratu zen. Batzordekideak; Joxe Etxeberria, Laureano Telleria, Ixidro Arondo, Ramon Telleria, Daniel Larrea eta Gregorio Etxeberria izan ziren.

Junta osatuta, berehala hasi ziren beraien zereginetan. Lehena, ikastola haurrez betetzea zen. Junta kideak, etxez etxe hasi ziren haur bila. Gurasoei, lehenik, herriko proiektu berritzalea aurkezten zitzaien eta ondoren, euskaraz ikasteak zuen garrantzia eta jabetza azpimarratzen zieten. Pixkana juntakoak haurrak lortzen hasi ziren. Ikastolaren irekierarako 12 haur bildu zitzuten, mugimenduaren esanetan, izugarrizko arrakasta 1200 biztanle inguruko herri txiki batean.

Junta kideen inguruan lanerako prest zegoen guztien laguntzarekin beste hainbeste lan bideratu ziren. Alde batetik, haurrak matrikulatu nahirik zenbiltzan bitartean, ikastola izango zen lokalaren bila ibili ziren. Eta bestetik, andereño baten bila ere bai aritu ziren. Ikastolaren lehen urratsak oinarrizkoak izan ziren zaitasun asko eta abantaila gutxi zegoen garai honetan.

Ikastolaren proiektu berria gauzatzeko lokalaren beharra zegoenez udalari eskaera bat egin zitzaiion ikastolako batzordearen izenean. Egun batzuen buruan, plazan zegoen Txanbolinpeko lokala utzi zien, milaka betebehar eta baldintzaapean. Udalak batzordekoei lokalak utzi ondoren, herriko jendearen iritzia aldatzen hasi zen. Herriko guraso asko ikastolen mugimendua beste modu batera ikusten hasi zen udalak izan zuen jokabidearen ostean.

Ikastolaren proiektua gauzatu ahal izateko, andereñoen beharra ezinbestekoa zen. Urte horietan ez zen autreñorik inguruan. Ez zen gaur bezain erraza autreñoa aurkitzea. Juntakoak Maixabel Telleria gaztearengana jo zuten ikastolako andereñoa izan nahi ote zuen galdetzera. Baiezkoa jasota, bera izan zen ikastolako Haur Hezkuntzako (HH) lehen irakaslea.

Udalak emandako lokala hornitzeko eta autreñoaren praktikak ordaintzeko, hau da, dirua lortzen hasteko, beste hainbat ekintza ere bideratzen hasi ziren; *itsuen errifak*, tonbola, festetan taberna, bertso jaialdiak, pilotak partidak, abeslarien emanaldiak, dantzariak...

Ikastolak, San Joan izenarekin 1967ko martxoaren 28an ireki zituen bere ateak hamabi haurrekin, Txanbolinpe gainean Maixabel Telleria autreño zutela. Bigarren irakaslea Maixabel Oiarbide izan zen. 1970eko urtarrilean hasi zen ikastolan lanean, M. Telleriarekin egon ziren haurrekin (Lehen Hezkuntzako zikloan).

Gogoratzen denez, bigarren batzordea Laureano Telleria, Ramon Telleria, Daniel Larrea, Joxe Ariztimuño, Gregorio Elortza eta Kruxmari Intsaustik osatu zuten. Batzorde honek ere hamaika lan eta bilera bideratu behar izan zituen gero eta haur eta betebehar gehiago baitzeuden Ikastolan.

Don Feliz Alcorta Arrizabalaga, Secretario Acctal. del Ayuntamiento de Segura:
CERTIFICO:

Que en el expresado Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 6 del actual, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:

"Dada cuenta del escrito presentado por la Junta de Enseñanza, denominada " IKAZTOLA " de esta Villa, intercediendo la cesión de un local para la enseñanza parvularia en lengua vascongada; después de detenidó estudio, por unanimidad, se acuerda ceder el local conocido por la antigua Academia de Música, en las siguientes condiciones:

1º.- Dicha cesión será a título gratuito.
2º.- La misma se entiende EN BLANCO, debiendo dejar el local a disposición del Ayuntamiento en cuanto sea solicitado por éste sin derecho a indemnización alguna.

3º.- Deberá mantener el local de referencia en perfecto estado de conservación, corriendo por cuenta de la Junta cualquier desperfecto que se cusare, así como su reparación. Correrá también por cuenta de dicha Junta el entretenimiento del mismo, luz y calefacción.

4º.- No podrá realizar ninguna clase de obra que afecte a la estructura del local sin la previa autorización del Ayuntamiento y, caso de serle concedida, su realización será por cuenta de la Junta, pasando a poder del Ayuntamiento cualquier mejora realizada, sin derecho a indemnización alguna.

5º.- No podrá subarrendarse el local ni destinarlo a otros usos que los arriba se alados.

6º.- El incumplimiento de cualquiera de los TRES puntos anteriores, inmediatamente será causa suficiente y obligatoria para dejar el local a libre disposición del Ayuntamiento".

Y para que conste y surte los oportunos efectos, expido y firmo la presente, de orden y visada por el Srl Alcalde en Segura a diez de Julio de mil novecientos sesenta y siete.

Feliz Alcorta:
Rubricado

Vº. Bº.
EL ALCALDE
Simón Gamayaldas
Rubricado

Hay un sello en tinta
que se lee:
ALCALDIA de la N.yL.
VILLA DE SEGURA

SR. PRESIDENTE DE LA MARINA DE SEGURA



LAUREANO TELLERIA Ikastolaren sorrerako juntakidea

“Errexa etzen izan, zaitasun asko zeon. Deskonfiantza asko zeon. Ez zekizun zer gertatuko zen ikastolan ondoren eta ordun zaila zan. Ordun ume bila juten ginen eta nik uste det garai hartan zegon girorako bastante. 12 umekiñ hasi zan ikastola eta nik uste dut garai hartako asko zala. Zeren oztopo asko zeuden”.



GREGORIO ELORTZA Bigarren juntako kidea

“Gure garaiko eskola erdaldun eta itxi hark sortzen zigun ittolarria ez dago adierazterik. Gerora, ikastola eta bere inguruan sortu zen giroari esker, esan dezaket, arnasa hartzeko zirrikitu bat irekitzea bezala izan zela guretzat. Eginkizun horretan, herriar gehienek parte hartu zuten, era batera edo bestera”.



Ikastolak
antolaturiko
San Joaquin-
tako umeen
eguna.

LEHEN URRATSAK

SECUNDARIO
URRATSAK
SANJOAN
ikastola-
ren sorrera

LEHEN URRATSAK

60. hamarkada ez zen garai lasaia izan, ez behintzat Seguran. Diktaduraren azken urteak ziren, errepresio handia, grebak, istiluak... Baino, Euskal Herriko herri txikieta gauzak aldatzen hasiak ziren. Gregoriok esan bezala “Guk garai hartan ikusten gendun behar larri bat, ittolarri bat bezela. Eskolan egurre, erdara, hor kuartela, bata, bestea. Zer da hau?”. Euskal Herrian Euskal Eskolen aldeko mugimendua sortzen hasi zen. Klandestinitatetik gizarte sozialera egin zuen salto mugimendu honek, Segura bezalako herri txikieta raino iritsi arte.

Seguran herritar zati batek ikastolaren projektua gogotsu eta indartsu hartu zuen. Auzolanean aritzen ziren lan guztiak prestatu eta egiteko, familia handi baten moduan. 6-8 pertsonako junta edo batzorde bat egituratu zen ikastolako eginbeharren kargu izateko eta martxan jartzeko. Beti bat eginda zeuden, elkarri animoak emanetz eta lanerako giro oso ona egoten zen beraien artean. Nahiz eta ezezko asko jaso, beti umore positibo eta baikorra zegoela adierazi dute Gregorio eta Laureanok: “Elkartasun handia eta lanerako gogoa nagusitzen zen juntako bileretan”.

Juntako ordezkari bat Beasainera joaten zen, informazio guztia Beasaindik baitzettorren. Beasaingoek esaten zutenaren arabera jokatzen zuten Segurakoek, jada, garai hartarako Beasainen Ikastola irekita baitzegoen. Laureanok esan bezala “Beasaingoak gidatzen zun gure jokabidea”.

Juntako lehen eginbeharrok; ikastolarentzako lokala bilatu, haurrak bilatu, andereñoak bilatu eta dirua bildu hori guztia mantentzeko. Dirua biltzeko Seguran jaiotako eta kanpoan bizitako denei bidali zitzaison eskaera esanez ikastola ireki nahi zela Seguran. Orokorean diru mordoa eskuratu zuten.

Ikastolako guraso ez ziren baina bazkide izan ziren guztien laguntza ere gogora ekarri nahi dugu. Ikastolaren mugimenduan bazkideak egundoko garrantzia izan zuten era batera edo bestera, babes eta laguntza eskaintzeko prest agertu zirelako iniziatiiben aurrean. Segurako herritar asko, 50 inguru, izan ziren ikastolako bazkide. Hilero-hilero beraien kuota ordaintzen zuten, hainbat ekintza ezberdinetan parte hartzen zuten eta auzolanean ere laguntzen zuten.



MAIXABEL TELLERIA Ikastolako HHko lehen irakaslea

“Gaztetatik irten zen dana, gero gurasotara pasa zan ikastola sortzeko mugimendu hau. Gurasoek etorri ziren neregana ea andereño izan nahi nuen ikastolako proiektua nola zegoen esanez. Nola beste herritan zeuden lanen eta bueno nei ongi iruitu zitzaiten, eta hala hasi nitzen”.



MAIXABEL OIARBIDE LHko lehen irakaslea

“Ni magisterio ikasten ari nintzen Donostian. Gogoratzen naiz Laureanok zuzenki galdetu ziela ea etorriko nintzen hona. Oraindik bukatu gabea nuen, praktikak egin nituen, bano ondo. Beldurrik ez gendun, gazte izateak zerduen. Ni 70. urtean hasi nintzen urtarrilean, gogoan daukat, 20 urte nitun orduntxe itteko”.



Gabon eske irteteko prest. 1967ko abendua.



Segura 1955 urtean. Andre Mariaren Jasokundearen eliza. Indalecio Ojanguren.

LEHEN
HAZIAK

SAN JOAN
ikastola-
ren sorrera

LEHEN HAZIAK

Metodologia berria

Ikastoletan ikasteko metodologia desberdina erabili zen. Rosa Sensat eskola mugimenduari eta Freinet metodologiari jarraiki Segura ikastolako bi irakasleak Kataluñiara joaten ziren material pedagogiko berrien ikastaroak jasotzen. “Lanerako beharrezko genitun ideia eta material berriak ezagutzeko aukera izaten genuen gero praktikan jartzeko. Ordun etzegon oporrik uztailaren, hilabete hori prestakuntzarako izaten zen” dio Oiarbidek.

“Ikasteko modu desberdin hontan, haurra zen protagonista. Hitzeinez, haurrak bere historiak, pentsamendu, sentimentu eta arazoak besteekin konpartituz. Elkarri entzunez errespeton elkar ezagutuz....Ipuinak kontatuz, era guztietako ipuinak, batzutan andereñoak kontatua eta bestetan beraiek asmatuak. Ipuinak eta bestelako testuak idatzi eta irakurketan eta idazketan trebatzeko erabiltzen genitun. Gure herria ezagutu eta maitatu bere tradizio eta historia azalduz” adierazi dute ikastolako bi andereñoek.

Metodologia berria gurasoentzako txoke handia izan zen. Gurasoek uste zuten ez zutela ikasten, marrazkiak bakarrik egiten zituztela, jolastu.... Normala zen metodologia berriek zalantza sortzea. Baino 50 urte igaro ondoren, ikusi da ikastolak erabilitako metodologia orain erabiltzen dutenaren oinarri izan dela.



1967ko abenduan gurasoei gabonak zoriontzeko oroigarria.



Eguberri sariotegat opa disuete

Hastalako haurrek

1973ko eguberriarako haurrek egindako aldizkaria.

Arazorik handiena LH zikloko materiala izaten zen. Kataluniatik Casal metodoa ekarri zuten LHkoentzat, baina irakasleak izugarrizko lana egin behar izaten zuten hori dena ikasleei egokitzeko. Lehenik, material guztia euskaratu. Ondoren, kopiak ateratzera joan. Garai haietan ez zegoen kopistegirik gertu. Maixabel O.: "Garai hartako kopistegiak ez zuten gaurkoen antzik. Puntzoi batekin eskuz idazten genun klitxe batzutan eta ondoren tintaz betetako rodillo batean jarri eta nahi aiña kopia egiten genitun" gogoratzen du.

Irakasleak ere zaittasunetan gogor egin eta beti ateratzen zuten denbora eta gogoa haurrentzat materiala, saioak, metodologia eta egin beharreko guztia egiteko. Gurasoek ez ohiko irakasletzat hartzen zituzten gure bi andereñoak. Pixkanaka, egiten zuten lana eta esfortzua ikusita, beraien iritzia ere aldatu zen.



MARITXU URRETA

Ikastolako gurasoa

"Ikastolako gurasoak horri zioten beldurra. Ni akordatzen naiz gure umek ikastolan hasi zienen nola guri esaten ziguten, atrebitzen zeate? Atrebitzen zeate haurrak ikastolara bidaltzea? Neri kanpotik esaten ziaten 6 urterekin oraindik etzutela irakurtzen ikasten umek. Eta nei sartzen zian beldur bat ordun..."



Ikastolako
haurrak
Maixabel
Telleria an-
dereñokin
gabon
eske.

HASIERAKO BELDURRAK

S E C U D A K O
S A N J O A N
kastola-
ren sorrera

HASIERAKO BELDURRAK

“Garai gogorrak izan ziren” azpimarratzen du Maritxu Urretak. Diktadura bete betean Euskal eskolen aldeko proiektu bat egitea eta haurrak bertan ikastea pentsaezina zen. Euskara klandestinoa zen, beraz, ez zen begionez ikusten haurrak euskara hutsean ikastea.

Herrian ikastolaren aurkako propaganda handia zegoen. Herritarrek haurrak ikastolan ez zutela ongi ikasiko, ikastolaren ondoren ez zutela nora joaterik izango eta jolasak, marrazkiak eta abestiak kantatu bakarrik egiten zituztela esaten zuten. Segurako herritar batzuek sei urterekin irakurtzen eta idazten ez zekitela esaten zuten, eta horrez gain, ikastolako haurrek ez zutela etorkizunik izango.

Gurasoak protagonismo handia hartu zuten ikastolen mugimenduan, izugarrizko esfortza egin baitzuten proiektu hau aurrera eramateko. Baino hala eta guztiz ere, beldurra eta ezinezgona sentitzen zuten lehen urtetan. Beldurrik handiena Lulik esan bezala, “eta bost urte eta gero zer? Hori eta gero zer? Irakurtzen badakite? Eta idazten? Erdaraz badakite?”.

Ikastolako ikasle zaharrenak 9 urterekin Beasaingo ikastolara joaten hasi zirenean gurasoen eta juntakoien beldur guztiak baretu ziren. San Joan ikastolako ikasleak oso emaitza onak atera zitzuten, eta ondorioz, ikusi zen ikastolan erabilitako metodologia berriak balio izan zuela hezkuntza sistema egoki eta euskaldun baterako. Gurasoien hasierako kezka eta beldurrak gainditzen joan ziren denboraren poderioz.



LUIS MARI TELLERIA Ikastolen aldeko mugimenduko kidea

“Hemen Seguran kuartela eukita nahiko oztopo zan danerako. Arteen, Franco hiltzeko zeon, egoera etzan orain bezela. Eta nahiko oztopo izaten zan. Gero oztopoa baita, zeinbait guraso konbentzitzu behar izaten zalako. Halako proiektu baten aurren konfiantzeko eta lasai egoteko. Dan dana zan oztopo”.



JABIER ALBIZU Ikastolen aldeko mugimenduko kidea

“Gaurtik ikusita da salto kualitatibo izugarria pedagogia aldetik, izugarrizkoa. Reboluzio bat. Lehen zeonetik ikastolak ekarri zuena handia izan zen. Ikastolak nolabait bidea ireki zun eta orain eskola publikoak ere aplikatzen dute. Pedagogiak modernizatu egin dira. Baino hor aitzindariak izan ziren ikastolak. Gurasoak zirenak momentu hartan gorriak pasata hori bai”.

HASIERAK BETI GOGORRAK

HASIERAK BETI GOGORRAK

"Hasierak beti izaten dira gogorrak", gogorarazi digu Jabierrek. Hasieran, denak auzolanean parte hartzen zuten. Taberna jartzen zuten Barrundianeko garajearen. Oztipoak oztipo beti saiatzen ziren beraien eskutan zegoena egiten. Luliren esanetan "Juntatzen ginan jendea, bestela etzegoen ezer itteik. Merezi izan du orduan egindako lan eta esforzu guztiak, noski baietz".

Ikastolen aldeko mugimendua euskararen eta euskal kulturaren balore sozialaren goratzea ekarri zuen. Euskal gizarte gero eta burujabeago izaten hasi zen Ikastolen kontuekin eta gizarte-beldurra gainditzen hasi ziren.

Askorentzat, 60. hamarkada, inflexio puntuia izan da. Ikastolak bere garapenean aurrerakuntza handiak ekarri zituen. Ikastoletan erabiltzen zen metodologia berria eta euskara hutsean zen.

Guraso eta gertukoak aldetik mesfidantza handia zegoen. Baino urte batzuen buruan, argi ikusi zen emaitza onak ematen zituela. Beraz, hasiera gogorra izan bazen ere, etorkizun oparoa ekarri du euskal gizartearentzat ikastolen mugimendua.

Herritarra euskara gehiago baloratzen hasi ziren eta herriko kaleetatik atera eta ofizialtasuneranzko bidea hartu zuen. Euskarak eta ikastolek hamarkada bukaeran izan zuten ofizialtasuna balore sozialekin batera handitzen joan zen.

Eta ondorioz, euskararen egoera hobetu eta normalizatu egin zen gizartearren egunerokotasunean.

Cuaderno n.º 58
Folio n.º 28

MINISTERIO DE JUSTICIA
JUNTA DE PROTECCIÓN
DE MENORES

Provincial de Guipúzcoa.
Local de _____

INSPICCIÓN DEL IMPUESTO DEL 5 por 100 SOBRE
ESPECTACULOS PÚBLICOS

ACTA DE INFRACCION REGLAMENTARIA

En Segura a 27 de Junio de 1.975 siendo las 11 horas constituida la Inspección en la calle de Mayor, 2 donde existe domicilio particular de José J. Legorburu Balsón como representante de Organización que ha comprobado la siguiente infracción reglamentaria: Incumplimiento del art. 25 del Regl. con relación al festival de variedades organizado en el Frontón Municipal de la localidad, el día 21 del actual.

Sanción de 150.- pts. (menos de 5.000 habitantes), art. 115(j), comprendida en el artículo 119 apartado 3 del Reglamento del Impuesto.

Por la Inspección le fué entregado a D. José J. Legorburu el duplicado de esta acta, y se le manifiesta por ella que en el plazo de ocho días siguientes a esta fecha, puede protestar contra aquella en la forma establecida por el artículo 122 de dicho Reglamento.

El interesado,
ENCARGADO O TESTIMOS,

EL INSPECTOR,

[Signature]

Ikastolak herrian egindako jaialdiengatik jaso zuen isun-orria. 1975eko ekainaren 27an.

OROITZAPENAK

SEGUNDO AL
SEGUNDO
SAN JOAN
Ikastola-
ren sorrera

OROITZAPENAK



JOSEBA TELLERIA
Ikastolako ikasle ohia
(1967ko martxoaren 28an hasi zen)

"Nik oroitzapen asko eta onak dauzkat. Gustora joaten nitzen ikastolara. Aktibitate mordoa egiten genuen: ipuinak, abestiak, buruhauasteak, eskulanak, jolasak, mendi-irteerak... Txanbolinpe gaineko lokala oso handia ikusten nuen orduan, gaur berriz, oso txikia iruditzen zait".



JOKIN IZAGIRRE
Ikastolako ikasle ohia
(1968ko apirilaren 2an hasi zen)

"Jaialdiak eiten genitun emisorako zinean (egungo botika zaharrean). Antzerkiak, Bilintx Balantx kantatzen gendun eta denak pozik. Oroimen hori dauket, astoa ikusi nuen abesten genuen, eta bestea Bilintx Balantx".



INES ORMAZABAL
Ikastolako ikasle ohia
(1969ko irailaren 15ean hasi zen)

"Nik beti aitzen non aittek nola esaten zun beste era batea ikasten ai ginela, burua askatzen zala, hori ona zala, ez zela dena memorizkoa, onera esaten zuen. Aitak dena onera esaten zuen".

TXIKITAKO OROITZAPENAK

Ikastolako lehen ikasleak Txanbolinpeko goiko lokalera joaten ziren ikastolara.

Bertan, alfonbra handi batean jartzen ziren denak lurrean eserita Maixabel irakaslearen ipuinak entzuteko gogoz. Abestiak, marrazkiak, buruhausteak, plastilina, irteerak.. denetik egiten zuten ikastolan. Ikasle ohien oroitzapen nagusia “oso oso gustora joaten ginela eta oso ondo pasatzen nuela” Joseba Telleriak esan bezala.

Mendira eta errekara irteera asko egiten zituzten, arratsaldeetan gehienbat. Oso ondo gogoratzen da Jokin: “Aldaterdiko askan harrapatzen giñuzten xapabixik eta uhandreak”. Handitzen joan ahala pupitreak erabiltzen hasi ziren. LHzikloan “formaltxoago ginan”, etxeko-lanak egiten zituzten eta liburu eta fotokopiak erabiltzen zituzten ordurako.

Inesek festetan jartzen zuten tabernaz du oroitzapena. Taberna dirua lortzeko jartzen zen eta ikastolako haurrek hura apaintzeko marrazki pila egiten zituzten.

Taberna irekitzen zenean marrazkiak ikustera gerturatzentziren. Ekitaldieta koxintzen sariak ere ikasleek egiten zituzten. Aste guztian zehar esku-lanak egiten jarduten ziren ekitaldian sariak egoteko. Horrez gain, Inesek gogoan du “Kotxinak edukitzen giñuzten ikastolako balkoian tegi baten barruan.

Gero guk zaindu ein behar giñuzten, jana eman, zaindu, ura...”.



Ikastolareneko aldeko pelota partidua. Joseba Oiarbide, Begoña Ormazabal, Mertxe Larrea eta Miren Aranburu ikasleak. Arrian III, Ximon, Gallastegi.

TXANBOLINPEKO LOKALA TXIKIA GERATU ZEN

Ikastola sortu eta denbora gutxira txikia geratu zen txanbolinpeko lokala.

Ikastola 12 haurrekin hasi bazen ere, urte gutxira 40-45 ikasle inguru izatera pasa ziren. 1972-73 ikasturterako bigarren areto bat egokitu behar izan zen gaur egun jubilatuen elkartea dagoen lekuau.

Era honetan 1go, 2. eta 3. mailakoek Txanbolinpen jarraitu zuten eta txikienak, berriz, lokal berrian hasten ziren.

Areto berri hau eta bere patioa elizak utzi zion ikastolari baina egokitzapen lan handia behar izan zuen. Obra guztia auzolanean egin zen eta hainbat herritar eta

ikastolako guraso aritu
ziren iluntzetan eta
larunbat goizetan zenbait
hilabetez, bai aretoak eta
bai patioa egokitzen.



Ikastolako haurrak
iñauteriak ospatzenten.


IKASTOLAKO FURGONETA

Ikastola sortu eta urte batzuetara Segurako ikastolak garraio partikularra izan zuen herritik kanpo bizi ziren haurren bila joateko. Lan hori herriko guraso eta irakasleen artean antolatzen zuten.

Zerain eta Mutiloako ikasleak ikastolara joateko furgonetan joan behar izaten zuten, ez baitzuten bertatik pasatzen zen autobusera sartzerik. Jabier Albizuk esan bezala, “Zeraindik eta Mutiloatik eskola nazionaletara etortzen ziren haurrak horiek ordaindua zaukaten bidaia. Eta nolabait ikastolara etorri behar zuten haurrak ez zuten sarrerarik autobus hortan. Horixe da kontraesana”.

Egoera horrela izanik, irakasle eta gurasoak, Madrilen matrikulaturiko Dos Caballos furgoneta batean, Mutiloan Koortzuraino eta Zerainen Aizpetaraino joaten ziren haurren bila. Furgoneta hura Madrilen bizi ziren segurarren diruarekin erositakoa zen. Furgoneta ekarri ostean, auzolanean ibiltzen ziren laguntzaileak haurrak esertzeko eserlekuak jarri zituzten. Dena egokitu ondoren, hortxe ibiltzen ziren gustura beste herrietako haur pila andereño eta gurasoekin furgonetan gora eta behera, etxetik ikastolara eta ikastolatik etxera.

Ikastolako hileroko kuotaren ordainagiria (1977ko abenduko). Guar egun 2 euro baino gutxiago balioko luke. Laureano: “Etxean etzen asko irabazten baino honetarako dirua jartzten zen”.



**EZ DIRA
ASPALDIKO
KONTUAK
ANTZEZLANA**

EZ DIRA ASPALDIKO KONTUAK ANTZEZLANA

Gerraosteko memoria lantzeko grina ekintza ezberdinekin erakusten dute Segurako herritarrek. Esaterako, segurarren herri dinamika batek bultzatuta *Ez dira aspaldiko kontuak antzezlanan burutu da.*

Euskal Herriko gerraoste gordina erakusten digu antzerki obra honek. Segurako herritarren talde ekimen baten emaitza izan da. Bailara osoko eta belaunaldi ezberdineko pertsonaiak izan dira antzezleak. Tabladu gainean 30 antzelarik parte hartu dute, gehiengoa segurarra.

Belaunaldi gazte berriei duela 50 urteko bizitza nola zen eta garai haien bizi izan zitzetenei nola izan ziren gogora ekartzeko saiakera izan da. Ikastolak sortu ziren garai zail haietan hezkuntza eta eguneroko bizitza nolakoa zen erakutsi eta gogoraraztea da antzezlan honen helburu nagusia.

Gidoia eta zuzendaritzat Idiazabalgo ikastoletako lehenetariko irakaslea izan zen Lourdes Imaz segurarrak egin ditu. Imazek esan bezala: “Ni irakaslea naizenez, eskolan ikusi det ze aldaketa jo dun. Eta horregatik, neri gustatzen zait antzerkia transmisio bide bezela izatea, erakusteko, hausnartzeko, ikasteko...”.

Ikastolaren sorrerak goierriko eskualdean ez ezik, Euskal Herriko txoko guztietan izan zuen bere oihartun eta eragina. 60. hamarkada euskara eta euskal hezkuntzarentzat urte itxaropentsuak izan ziren, herritarrek nahi zuten etorkizun berri bat eraikitzen hasteko aukera ireki baitzuten.

Zaitasunak zaitasun oztopo guztiei aurre egiteko gai izan ziren eta horregatik, goraiapetu eta duten garrantzia eman nahi diegu Ikastolaren aldeko mugimenduan laguntzen, parte hartzen, lanean, irakasten, dirua biltzen eta hainbat lan ezberdin askotan egon den pertsona orori.

Hasieran, ezkutuan erein ziren haziak eman dute beraien fruitua...



Eskualdeko ikastolaren sorreran parte hartu zuten kide berberak aurki ditzakegu antzezlan honetan. Argazki honetan, Beasainen ezkutuan izaten zituzten bileraren eszenografia bat eskaintzen dute.

SAN JOAN IKASTOLAKO IKASLEAK (1967TIK 1981 BITARTE)

SAN JOAN IKASTOLAKO IKASLEAK

(1967tik 1981 bitarte)

1967ko martxoan hasi ziren ikasleak:

BIXENTE ALBIZU IZAGIRRE	RAMON MARIA GALARZA ALDASORO
RAFAEL LARREA IZAGIRRE	MIKEL IZAGIRRE MENDIZABAL
JOSEBA TELLERIA ALBIZU	MIREN ARANTXA ARANBURU ZINGUNEGI
ANGEL Mº UGALDE VIGUERA	PEDRO GALARZA ONRAITA
ANGELA CEA HILARIO	MIREN BEGOÑA ORMAZABAL APEZTEGIA
JUANTXO UGALDE IGELZ	IÑAKI XABIER AUMENDIALUSTIZA
IÑAKI OIARBIDE HERNANDORENA	Mº MERCHE LARREA IZAGIRRE
JESÚS Mº ALDANONDO ANDOLA	JON AITOR GABILONDO ROYUELA

Lehen urtean (1967) ikastolan txertatzen joan ziren ikasleak:

JUAN Mº IMAZ TELLERIA	JOAQUIN IZAGIRE ALUZTIZA
Mº JOSE OIARBIDE ASURMENDI	AITOR ANTXIA ETXEVERRIA
JOSE JAVIER ORMAZABAL UGALDE	GURUTZ GOIKOETXEA ETXEVERRIA

1968ko irailaren 9an hasi ziren haurren izenak jarraian:

MIREN ARANTZA ARRONDO ALBIZU	MIREN GURUTZE TELLERIA ALBIZU
MIREN IZARRA LARREA IZAGIRRE	JOAQUIN ALDANONDO LUZURIAGA

1969ko irailaren 15ean ikastolan hasi ziren haurren izenak:

MARIA INES ORMAZABAL IMAZ	LUIS CARLOS CID CONDE
JOSE MIGUEL ALDANONDO ANDOLA	JOSE Mº IZAGIRRE ALUSTIZA
MIREN IÑAKI ETXEVERRIA ORMAZABAL	IÑAKITELLERIA ARRIZBALAGA
ANA ARACELI UGALDE VIGUERA	JAVIER ALDANONDO LUZURIAGA
FERNANDO GALARZA ONRAITA	

1970eko irailean hasi ziren haurren izen-zerrena:

AGUSTIN IMAZ LAZKANO	LIERNI ARRONDO ALBIZU
XABIER ALBIZU IZAGIRRE	JON ANDER INTXAUSTI URKIA
JOSEBA AUZMENDI ALUSTIZA	JULE TELLERIA ALDANONDO

1971ko irailaren 15ean hasi ziren haurren izenak dira honako hauek:

MARIA ELENA RUIZ APAOLAZA	MIKEL IZAGIRRE URRETA
ANDONI ETXEVERRIA ORMAZABAL	MIREN KARMELE ORMAZABAL UGALDE
MIREN VALENTINA UGALDE IZETA	MIREN JAIONE TELLERIA ALBIZU
SANTITELLERIA ARRIZBALAGA	ARANTXA GARCIA LARREA
AITOR LARREA IZAGIRRE	ESTHER BEGOÑA BELLIDO GARCIA

1972. urte hasieran ikastolan hasi ziren haurren izen-zerrenda:

GURUTZ ALDANONDO ANDOLA	JON GOTZON OSINALDE UGALDE
-------------------------	----------------------------

1972. urteko apirilaren 10ean eskolatu ziren harren izenak:

MIREN BAKARNE TELLERIA LAPIZONDO	MIREN IRUNE ETXEVERRIA GEREÑU
MIREN GURUTZE ETXEVERRIA ORMAZABAL	MIREN IZASKUN IZAGIRRE SARRIEGI

1972ko irailaren 18an Ikastolan ikasturtean hasi zuten ikasleak:

XABIER ALUSTIZA URKIA	GORKA IZAGIRRE URRETA
JOXE MARI GARCIA LARREA	JOSEBA XABIER ALUSTIZA MUJICA
MAIDER INTXAUSTI URKIA	

1973ko irailak 17an hasi ziren haurren izen-zerrenda:

AITOR ARISTIMUÑO GOIKOETXEA	MIREN NEREA AREIZAGA CAMARA
BAKARNE ARANBURU LOPETEGI	MIREN JASONE TELLERIA ARRIZABALAGA
NEKANE ALUSTIZA ETXALUZE	JAIONE GARCIA LARREA
ASIER ALUSTIZA ETXALUZE	ANDOITZ TELLERIA GABIRIA
ARANTXA OIARBIDE PEREZ	XABIER ORMAZABAL REKONDO
Mº JOSE ARRONDO AREIZAGA	Mº CONCEPCION ARTOLA INTXAUSTI
IÑAKI REKONDO IPARRAGIRRE	LUIS GARMENDIA ALDANONDO
IMANOL UGALDE SENPERENA	EDURNE IZAGIRRE SARRIEGI
KARMELE ETXEVERRIA ORMAZABAL	MAITE IZAGIRRE SARRIEGI
MIGUEL ARANBURU IMAZ	MIKEL ETXEVERRIA SARRIEGI

1974ko ikasturtean eskolatu ziren ikasleak:

IBON ETXEVERRIA GEREÑU	DIEGO ALDANONDO AIZMEDI
MIREN ARANTXA IZAGIRRE AIESTARAN	JON ARISTIMUÑO GOIKOETXEA

1974ko irailaren 16an ikasturtea hasi zuten ikasleak:

XABIER ZABAleta MURGIONDO	JAIONE ETXEVERRIA REKONDO
URKO LARREA IZAGIRRE	LUISTELLERIA ANDUEZA
AITOR ARRONDO ALBIZU	IÑAKI ORMAZABAL UGALDE
EDURNE OIARBIDE PEREZ	IDOIA RUIZ APAOLAZA
YOLANDA GABILONDO ROYUELA	IKER GARMENDIA ALDANONDO
JAVIER OLAZIREGI TELLERIA	AITOR LETURIA INTXAUSTI
JAIONE INTXAUSTI AGIRREBENGOA	JOSEBA OSINALDE UGALDE

1975eko urte hasieran eskolatutako haurren izenak:

JON ALUSTIZA MUJICA	GURUTZE IZAGIRRE AIESTARAN
JOKIN ETXEVERRIA ORMAZABAL	XABIER UGALDE SENPERENA

1975eko irailaren 15ean ikasturtea hasi zuten haurrak:

KARMELE ALUSTIZA LASA	AITZOL TELLERIA GABIRIA
MARKEL TELLERIA LAPIZONDO	ALOÑA INTXAUSTI URKIA
KOLDI UGALDE ELORZA	JON IÑAKI IZAGIRRE ETXEVERRIA
ANDOITZ APAOLAZA SAIZAR	IMANOL AGIRRE ABURUZA
KARMELE ALBIZU IZAGIRRE	

1976ko irailean ikasturtea hasi zuten haurren izenak:

EDURNE ARANBURU LOPETEGI	AMAIA ALDANONDO ALDAOA
IGOR OTEGI ORMAZABAL	GURUTZE ALUSTIZA MUJICA
IBON ERAUSKIN ARRUABARRENA	XANTI ARISTIMUÑO GOIKOETXEA

1977. urtean hasi ziren haur hauek Ikastolan:

JON AGIRRE ABURUZA	MIRIAM MARTIN MUÑOZ
JON INTXAUSTI USABIAGA	

1977ko irailaren 12an hasi ziren haurren izenak:

FELIX JAVIER GOIBURU MURUA	PATXI INTXAUSTI ETXEVERRIA
OIER BERASATEGI GERRIKO	AITOR APAOLAZA GOENA
ARANTXA ETXEVERRIA REKONDO	MIKEL AREIZAGA CAMARA
UNAI IZAGIRRE TELLERIA	IÑAKI ARTOLA INTXAUSTI
ENEKOITZ TELLERIA SARRIEGI	ENARA SODUPE INTXAUSTI
IMANOL INTXAUSTI AGIRREBENGOA	

1978ko irailaren 18an haur hauek hasi ziren Ikastolan:

XABIER IMAZ TELLERIA	ARITZ TELLERIA ARRUIE
BAKARNE ERAUSKIN ARRUABARRENA	GARIKOITZ IPARRAGIRRE EIZAGIRRE
EGOITZ BERESATEGI GERRIKO	OIHANA ARIZTIMUÑO FERREIRA
IMANOL IZAGIRRE Aiestaran	IGOR ELORZA ARRONDO
XANET GARMENDIA ALDANONDO	AMAIA APAOLAZA GOENA
GURUTZE IPARRAGIRRE LOPETEGI	JOSUNE ARRONDO AREIZAGA
ALOÑA ELORZA ZEBERIO	NEREA FERNANDEZ
AINHOA ORMAZABAL REKONDO	

1979ko irailaren 17an Ikastolan hasi ziren haurren izenak:

ALAZNE GOIKOETXEA ETXEVERRIA	ELISA GENUA SANTAMARIA
JUAN JOSE OIARBIDE ETXEZARRETA	JOSUNE TELLERIA PETROCH
NEKANE REKONDO IPARRAGIRRE	AITZIBER ETXEVERRIA IPARRAGIRRE
JOSE ORMAZABAL UGALDE	ENEKO GOIBURU MURUA
OLATZ ERAUSKIN ARRUABARRENA	AITZIBER MAKAZAGA ALUSTIZA
JON ANDER HOMBRE ALDASORO	AINARA ORMAZABAL REKONDO

1980ko irailaren 8an hasi zirenak Ikastolan:

JOSE JAVIER GOIKOETXEA ZABAleta	LARRAITZ INTXAUSTI ETXEVERRIA
JOXEBA ETXEERRI GEREÑU	OIHANA ETXEVERRIA IPARRAGIRRE
IÑIGO OTEGI ORMAZABAL	JOSE LUIS AMATRIAIN OCHOA
ARKAITZ SODUPE INTXAUSTI	MIGUEL IMAZ ORUS
EÑAUT TELLERIA URKIA	ALOÑA SALSAMENDITELLERIA
JOSEBA ZABAleta MURGIONDO	MIREN MAKAZAGA ALUSTIZA
AIERT IZAGIRRE TELLERIA	ARKAITZ ALONSO ALDASORO
IÑIGO RUBIO REKONDO	JOSEBA ANDONI GENUA SANTAMARIA
GAIZKA OLAZIREGITELLERIA	EGOITZ APAOLAZA GOENA
ASIER TELLERIA PETROCH	JON MIKEL IPARRAGIRRE LOPETEGI
URKO APAOLAZA SAIZAR	FRANCISCO JAVIER CASADO OCHOA
JOSE LUIS ELORZA ARAKAMA	